

ESKUBIDEEN MURRIZKETAREN AURKAKO EKIMENA



JON HERNANDEZ / ARGAZKI PRESS

Lehenengo lerroan, ezkerretik eskuinera, Dominique Agergarai, Asuncion Garmendia, Fermin Muguruza, Amparo Lasheras —hizketan—, Amets Arzallus, Eñaut Larralde eta Imanol Haranburu.

FERMIN MUGURUZA

Abeslaria

«Funtsezko eskubideak urratzen ari zaizkigu. Etengabeko ukazio baten historia da hau»

AMPARO LASHERAS

Kazetaria

«Intentsitate handiko garbiketa etnikoa iraunarazi duen bakarra PPko gobernua da»

Herritik mundura». Muguruzak azaldu zuen jendaurreko agerraldiaren bidez «gogoeta egin eta orotariko ekimenak haste-ko» gonbita egin gura diotela euskal gizarteari.

Haren hitzak berretsi zituen Lasheras: «Bada garaia zerbait egiteko. Bakoitzak bere esparruan, bere neurrian, baina Euskal Herriaren eskubideen alde ekin beharra dago». Muguruza baino gogorrago mintzatu zen gero: «Aznarrek Euskal Herria suntsitu gura du. Erasoi aurre egiteko eta Espainiako Gobernuak akabatuko ez gaituela ohartarazteko bildu gara alor askotako abertzale eta eskertzaleok. Halaber, Ibarretxeri esan gura diogu limosna politikoez bizitzeko asmorik ez daukagula». Agerraldia Gernikan egin izanaz ere solastatu zen Lasheras: «Sinbolismo handiko hiria da».

Lasheras «eskubide kolektibo» aldeko beharrari eutsiko diotela iragarri zuen, eta «intentsitate handiko garbiketa etnikoa» iraunarazi duen bakarra PPko gobernua dela salatu.

Atzoko Donostiako manifestazioa «bandera espainol pean betiko tolerantziarik eza eta tirania» ezkutatu gura dutela esan zuen Lasheras azkenik.

«Salbuespen egoerari» askotariko ekimenez erantzutea galdatu dute

Alor askotako hiritar «abertzale eta ezkertzeak» egin du deialdia, Gernikako Arbolapean

Iban Ocio | GERNIKA

«Euskal Herriak bizi duen salbuespen egoera» salatzeke, «azkenaldian areagotutako eskubideen ukazioa» gaitzesteko eta herritarren «gogoeta eta ekimen premiaz» ohartarazteko, askotariko sektore eta adinetako jendea Gernikako Bazar Etxe aurrean elkarretaratu zen atzo. Espainiako gobernuburu Jose Maria Aznarri buruz esan zuten Euskal Herria «suntsitu» gura duela. Ibarretxe le-

hendakariaren harira, «limosna politikoez» bizitzeko asmorik ez daukatela. Halaber, ezker abertzaleari «garbiketa etnikoa» leporatu izana deitoratu zuten.

Gernikako Arbolaren parean egin zuten agerraldia. Herrialde bakoitzeko ordezkari bana zegoen lehen ilaran: Bizkaiko Asuncion Garmendia «gudari ohia», Gipuzkoako Fermin Muguruza abeslaria, Arabako Amparo Lasheras kazetaria, Nafarroako Imanol Aranburu preso oihia, Nafarroa Behereko Eñaut

Larralde kantaria, Zuberoako Dominique Agergarai laboraria eta Lapurdiko Amets Arzallus bertsolaria. Atzerago zeuden, besteak beste, Pako Aristi idazlea, Ramon Agirre aktorea, Jon Maia eta Jon Lopategi bertsolariak, Iker Sarriegi futbolaria, Izaskun Guarrotxena ekintzaile feminista, Candido Esoain arrantzalea, Joseba Gonzalez sindikalista eta Pedro Albite etorkina.

Muguruzak eta Lasherasen jardun zuten bozeramaile. «As-

kotariko sektore eta adinetako jendea batu gara gaur Gernikan. Izan ere, azkenaldiko jazo-erek kezkarazten gaituzte. Euskal Herriak salbuespen egoera bizi du. Funtsezko eskubideak urratzen ari zaizkigu. Ez gara aske, etengabeko ukazio baten historia da gurea. Ildo horretatik, gogoeta egiteko premia sumatu dugu», adierazi zuen Muguruzak. «Edozein debekuren gainetik herri bat gara, eta ideia hori zabaldu gura dugu. Gernikatik Euskal Herrira, eta Euskal

Osakidetza
Servicio vasco de salud

2002ko ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA

Azaroaren 1ean, 2an eta 3an, ondoko zerrendan agertzen diren kategorien azterketak izango dira Bilboko Nazioarteko Erakustazokan Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak deitutako aukeraketa-prozesuaren barruan:

DATA	ORDUA	KATEGORIA	PABEILOI
02-11-1	9.00	ZELADOREA	4-5-8
02-11-1	13.00	ADMINISTRARIA	8
02-11-1	17.30	ERIZAINA	5
02-11-2	9.00	ERIZAINZAKO LAGUNTZAILEA	4-5-8
02-11-2	16.00	TELEFONISTA	8
02-11-3	9.00	ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	4-5-8
02-11-3	13.00	ZERBITZUETAKO OPERARIO-GARBITZAILEA	8

Hona hemen Bilboko Nazioarteko Erakustazokan helbidea:

Pedro M^a Basterretxea enparantza, 2. - 48013 BILBAO

Pabeiloilak noiz irekiko diren: Probaren hasiera ordua baino 30 minutu lehenago.

Pabeiloilak noiz itxiko diren: Aurreikusitako orduan; proba hasi ondoren ezin izango da inor sartu Pabeiloietara.

Informazio gehiago behar izanez gero, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Giza Baliabideetako Zuzendaritzara jo dezakezu, telefono hauetara deituz:

• 945 006 004 • 945 006 176 • 945 006 159

Emaitzen berri jakiteko telefonoa: 906 420 600.

0,09 € dei bakoitzeko + 0,67 €/minutuko (astelehenetik ostiralera, 08:00-20:00) + BEZ.

0,09 € dei bakoitzeko + 0,61 €/minutuko (astelehenetik ostiralera 20:00-08:00, larunbat, igande eta jaiegunetan) + BEZ.

www.osakidetza-svs.org.

Universidad
del País VascoEuzko Herriko
UnibertsitateaERREKTOREGOA
RECTORADO

[Lan poltsa bat osatzeko deia]

2002ko urriaren 15eko Erabakien bidez, Gerentziak lan poltsa bat osatzeko prozesu publikorako deia egin du. Lan poltsa honen bidez honako lanpostu hauetan aldizka sortzen diren hutsuneak bete nahi ditugu:

- Pilotoa, Nautikoa E.T
- Testu akademikoak itzultzeko teknikaria.

Deialdi honetako oinarriak interesatuen esku daude leku hauetan: Deialdi eta Lehiaketen Atalean: Erektoregoa bigarren solairua, Leioako Campusa (Bizkaia); Gipuzkoako Campuseko Erektoreordetzan Ignacio M.^a Barriola eraikina, Elhuyar plaza, 1, Donostia; eta Arabako Campuseko Erektoreordetzan Izardui komandantea, 2-Gasteiz.

Oinarrien arabera, hamar eguneko epea egongo da eskaera aurkezteko, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, eta Unibertsitateko Erektore Orokorean aurkeztu beharko dira (Leioako Campusa), edo lehen aipaturiko Campusetako Erektoreordetzetan, UPV/EHU-ren 2001eko martxoaren 19ko erabakian aipatzen dira bai bulego horiek bai Erektore Orokorearen UPV/EHUko ikastegiak (2001eko apirilaren 2ko EHAA). Interneteko helbide honetan ere ikus daiteke zerrenda http://www.ehu.es/erregistro_bulegoak.html

Leioa, 2002ko urriaren 20an

F.J Andechaga Vivanco, Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentea

Hondarribiko
UdalaORDAINKETARAKO
IRAGARKIA

2002KO EKONOMI IHARDUEREN
GAINEKO ZERGA.

2002KO BIDE PUBLIKOA, MAHAI,
AULKI ETA ANTZEKOEN
OKUPATZEA.

2002KO LEIHO, ERAKUSLEIHO
EDO ERAKUSMAHIETATIK
SALMENTA.

2002KO HILERRIAREN
KONTSERBAZIOA,
MANTENIMENDUA ETA
APAINKETA.

Ordainketarako epea: 2002ko
urriaren 1etik 2002ko azaroaren 11ra,
biak barne.

Azaroaren 12tik aurrera dagokion
errekargua ezarriko zaie.

Ordainketarako lekua: Kutxa, Eus-
kadiako Kutxa, La Caixa, Banco Gui-
puzcoano, BBVA eta BSCH.

HONDARRIBIA, 2002ko irailak 17.
ALKATEA.